Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko martxoaren 14a, asteazkena — 52 — Miércoles, a 14 de marzo de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## OÑATIKO UDALA

*2018ko Korpus eta San Migeletan lurzoru publikoak okupatzeko lizitazioaren baldintzen zerrenda.*

1. *Entitate adjudikatzailea.*

a) Erakundea: Oñatiko Udala.

b) Espedientea tramitatzen ari den bulegoa: Kultura.

2. *Kontratuaren xedea.*

a) Korpusetan, 2018ko maiatzaren 23tik ekainaren 4ra (biak barne) eta San Migeletan irailaren 19tik urriaren 9ra (biak barne), Foruen Enparantzako lehen aparkalekua izandako gunean feria, jostaleku eta postuekin udalak onartuko duen feria bereziarekin okupatzeko.

b) Exekuzio-lekua: Oñatin.

d) Epea: 2018ko Korpus eta San Migel jaixetan.

3. *Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta modua.*

a) Tramitazioa: Arrunta.

b) Prozedura: Irekia.

d) Hainbat irizpide, baldintza zerrendan jasotakoak.

4. *Kontratuaren prezioa.*

Baldintza zerrendan ezarritakoak.

5. *Kontratistek bete beharreko baldintzak.*

Baldintza zerrendan zehazten dira.

6. *Bermeak.*

a) Behin-behineko bermea: 210 euro. Behin-behineko bermea ezarriko da esleipena egin artean eskaintzak mantenduko direla bermatu ahal izateko. Eskaintzarik onena egin duenak baldin eta gero esleipenari uko egiten badio, ez zaio behin-behineko bermea itzuliko.

b) Behin-betikoa: 350 €.

7. *Dokumentazioa eta informazioa lortzea.*

a) Entitatea: Oñatiko Udala (Dokumentazioa eta informazioa Idazkaritzan) eta web orrian (www.oñati.eus).

b) Helbidea: Foruen Enparantza 1.

d) Udalerria eta Posta kodea: Oñati - 20560.

e) Telefonoa: 943.780.411.

f) Telefaxa: 943.783.069.

g) Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken eguna.

8. *Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea.*

a) Aurkezteko epea: 2018ko apirilaren 11tik 18ra arte. Proposamenak Oñatiko Udaleko Erregistroan aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera, goizeko 09:00etatik 14:00etara bitartean.

## AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Licitación para la ocupación de terrenos públicos durante las fiestas de Korpus y San Migeles del 2018.*

1. *Entidad adjudicadora.*

a) Organismo: Ayuntamiento de Oñati.

b) Dependencia que tramita el expediente: Cultura.

2. *Objeto del contrato.*

a) Ocupación del antiguo aparcamiento de Foruen Enparantza, desde el 23 de mayo hasta el 4 de junio (ambos inclusive) y del 19 de septiembre al 9 de octubre de 2018 (ambos inclusive), para su ocupación con instalaciones de carruseles, barracas y ferias durante las Fiestas de Korpus y San Migeles.

b) Lugar de ejecución: Oñati.

c) Plazo: Korpus y San Migeles del 2018.

3. *Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación.*

a) Tramitación: Ordinaria.

b) Procedimiento: Abierto.

c) Varios criterios que figuran en Pliego.

4. *Precio del contrato.*

Los establecidos en el Pliego.

5. *Requisitos del contratista.*

Según Pliego.

6. *Garantías.*

a) Provisional: 210 €. Se establece una garantía provisional para garantizar el mantenimiento de las ofertas hasta el momento de la adjudicación de las mismas. En caso de que el licitador, que presenta la oferta económicamente más ventajosa para el Ayuntamiento luego renuncia a la adjudicación se procederá a la incautación de la garantía provisional.

b) Definitiva: 350 €.

7. *Obtención de documentación e información.*

a) Entidad: Ayuntamiento de Oñati (Documentación e información en Secretaria) y en la página web del ayuntamiento (www.oñati.eus).

b) Domicilio: Foruen Enparantza n.º1.

c) Localidad y código postal: Oñati - 20560.

d) Teléfono: 943.780.411.

e) Telefax: 943.783.069.

f) Fecha límite de obtención de información y documentos: hasta el último día de presentación de ofertas.

8. *Presentación de las ofertas o de las solicitudes de participación.*

a) Fecha de presentación: Del 11 al 18 de abril de 2018. Las proposiciones se presentarán en el Registro Municipal del Ayuntamiento de Oñati entre las 09:00 y 14:00 horas de lunes a viernes.

EK\CV GAO-I-2018-01702

b) Eskaintzarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintzen Zerrendan dago zehaztuta.

d) Aurkezteko lekua:

1. Entitatea: Oñatiko Udala (Udal Erregistroa).

2. Helbidea: Foruen Enparantza 1.

3. Udalerria eta posta kodea: Oñati - 20560.

*9. Eskaintzak irekitzea.*

a) Entitatea: Oñatiko Udala.

b) Helbidea: Foruen Enparantza 1.

d) Udalerria: Oñati.

e) Eguna: 2018ko apirilaren 24an.

f) Ordua: 10:00etan.

*10. Bestelako informazioa.*

Baldintzen Zerrenda 2018ko otsailaren 15eko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz onartu zen.

Oñati, 2018ko martxoaren 7a.—Alkatea. (1702)

*Festetako barraketako postuen esleipenerako lehiaketa arautzeko baldintza juridiko, ekonomiko eta administratiboen plegua.*

*Lehiaketaren helburua.*

Oñatiko Udalak Korpus festetan eta San Migel festetan barraketako postuak esleitzeko lehiaketa publikoa deitu du.

*Lehiakideak.*

Lehiaketan parte hartu ahal izango dute:

— Jarduteko gaitasun osoa duten pertsonak, naturalak edo juridikoak; betiere, indarreko legedian ezartzen diren bateraezintasun edo ezintasun kasuetako batean agertzen ez badira.

Lehiaketan ezingo dute parte hartu hauetakoren batean nahasita egon diren pertsona natural edo juridikoak:

— Aurreko azoketan Oñatiko Udaleko ondasun higigarri edo higiezinetan berariaz (dolua) kalteak eragin dituztenek, kalte horiek ordainduta egon arren.

— Aurreko azoketan Oñatiko Udaleko ondasun higigarri edo higiezinetan, hala nahi gabe (dolurik gabe), kalteak eragin dituztenek, kalte horiek ordainduta ez badaude.

— Aurreko azoketan Oñatiko Udaleko langileengan berariaz (dolua) kalteak edo lesioak eragin dituztenek, kalte horiek ordainduta egon arren.

— Aurreko azoketan Oñatiko Udaleko langileengan, hala nahi gabe (dolurik gabe), kalteak edo lesioak eragin dituztenek, kalte horiek ordainduta ez badaude.

— Aurreko azoketan Oñatiko barraka-barrutian edo hartatik kanpo, ekintzaz edo ekintza ezagatik, borrokak, liskarrak edo antzekoak eragin dituztenek, betiere, gertakari horiek barraketako lanarekin ondoriozkoak izan badira.

— Oñatiko Udalarekin negoziaturiko funtzionamendu-klausulak bete ez dituztenek.

— Edozein arrazoi dela medio, barraketako jardunetik eratorritako edo harekin lotutako ekintza baten ondorioz, prozesu judiziala irekita dutenek.

— Barraketako jardunetik eratorritako edo harekin lotutako ekintza baten ondorioz delituzko kondena izan dutenek.

b) Documentación que integrará las ofertas: Se encuentra detallada en el Pliego de Condiciones.

c) Lugar de presentación:

1. Entidad: Ayuntamiento de Oñati (Registro Municipal).

2. Domicilio: Foruen Enparantza n.º 1.

3. Localidad y código postal: Oñati - 20560.

*9. Apertura de las ofertas.*

a) Entidad: Ayuntamiento de Oñati.

b) Domicilio: Foruen Enparantza, n.º 1.

c) Localidad: Oñati.

d) Fecha: 24 de abril de 2018.

e) Hora: 10:00 horas.

*10. Otras informaciones.*

Dicho pliego fue aprobado por acuerdo de Junta de Gobierno de fecha 15 de febrero de 2018.

Oñati, a 7 de marzo de 2018.—El alcalde. (1702)

*Pliego de condiciones jurídico económico administrativas que ha de regir el concurso para adjudicar los puestos de feria durante las fiestas.*

*Objeto del concurso.*

El Ayuntamiento de Oñati convoca concurso público para adjudicar los puestos de feria (atracciones) durante las fiestas del Corpus y San Migel.

*Sujetos del concurso.*

Podrán participar en el Concurso:

— Aquellas personas naturales o jurídicas que tengan plena capacidad de obrar y no se hallen comprendidas en alguna de las circunstancias de incompatibilidad o incapacidad previstas en la legislación vigente.

No podrán participar en el Concurso personas naturales o jurídicas a quienes concurran alguna de las circunstancias siguientes:

— Aquellas que en ferias anteriores hubiesen causado de forma voluntaria (dolo) daños en bienes muebles o inmuebles del Ayuntamiento de Oñati, aunque los mismos hubiesen sido resarcidos.

— Aquellas que en ferias anteriores hubiesen causado de forma involuntaria (sin dolo) daños en bienes muebles o inmuebles del Ayuntamiento de Oñati y los mismos no hubiesen sido resarcidos.

— Aquellas que en ferias anteriores hubiesen causado de forma voluntaria (dolo) daños o lesiones a personal del Ayuntamiento de Oñati, aunque los mismos hubiesen sido resarcidos.

— Aquellas que en ferias anteriores hubiesen causado de forma involuntaria (sin dolo) daños o lesiones a personal del Ayuntamiento de Oñati y los mismos no hubiesen sido resarcidos.

— Aquellas que en ferias anteriores tanto por acción como por omisión hubiesen causado peleas, altercados o similares dentro o fuera del recinto ferial de Oñati siempre que los mismos fuesen consecuencia de su actividad de feriantes.

— Aquellas que no hubiesen cumplido con las cláusulas de funcionamiento negociadas con el Ayuntamiento de Oñati.

— Aquellas que por cualquier motivo tengan un proceso judicial abierto derivado de cualquier actuación relacionada o relativa a su actividad de feriante.

— Aquellas que hubiesen sido condenadas por cualquier delito relacionado o relativo a su actividad de feriante.

EK\CV GAO-I-2018-01702

— Zehapen-espedientea irekita izan dutenek, zigorra barraketan parte hartzeko eskubidea galtzea izanik.

*Kokapena.*

Barraketako postuak leku hauetan finkatu beharko dira:

Foru Plazako Parkinga.

*Funtzionamendu-datak.*

Hauek dira finkatzeko atrakzio eta barraken funtzionamendurako ezarritako datak:

Korpus festetan: 2018ko maiatzaren 25tik ekainaren 3ra bitartean, biak barne.

San Migel eta Errosaixo jaietan: 2018ko irailaren 21tik urriaren 8ra bitartean (gehienez), biak barne.

*Instalaziorako epeak.*

Atrakzio eta barraketako postuen instalazioa eta muntaketa egun hauetan egin beharko da:

Korpus festetan: 2018ko maiatzaren 23tik aurrera.

San Migel eta Errosaixo jaietan: 2018ko irailaren 19tik aurrera.

*Karabanak eta atoiak uztea.*

Karabanak, atoiak eta barraketako gailuekin zerikusia duten ibilgailuak Ulma alboko aparkaleku publikoan utzi beharko dira.

*Instalazioak jasotzea.*

Hauek dira instalazioak jasotzeko eta, horrenbestez, aipaturiko lekuak libre uzteko epeak, beranduenera:

Korpus festetan: ekainaren 4ean.

San Migel eta Errosaixo jaietan: urriaren 9an (beranduenera).

*Hornidurak.*

Ur-hornidurak eta energia elektrikoko hornidurak esleitutako postuetako titularren konturakoak izango dira.

Esleipendun izan diren barraketako langileek barraketako gailuen funtzionamendurako nahiz etxebizitza edo karabanen funtzionamendurako beharrezkoa den energia elektrikoa kontratatu izana egiaztatu beharko dute, dokumentazio bidez.

*Ordutegiak.*

Atrakzio eta barraken funtzionamendurako ordutegiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak emandako araudia bete beharko da.

Lanegunetan, gauerditik aurrera (00:00), musika eta soinu erreprodukzio oro eten egin beharko da.

Jaiegun bezperan, goizeko ordu bietatik aurrera (02:00), musika eta soinu erreprodukzio oro eten egin beharko da.

*Muntatu eta desmuntatzeko ordutegiak.*

Muntatu eta desmuntatzeko lanak: ordutegi honen barruan burutuko dira: goizeko zortzietatik iluntzeko zortzietara (8:00-20:00).

*Instalazioak kentzean lurzoru publikoa garbitzea.*

Atrakzioaren pareko kalea egunero garbitu beharko da.

Behin instalazioa kenduta, okupatutako lurzoru publikoa garbitu beharko da.

*Lizitazioa.*

Lizitazioa alderdi hauen arabera balioetsiko da:

— Aquellas que hubiesen sido objeto de expediente sancionador cuya sanción sea la pérdida del derecho a participar en la feria.

*Emplazamiento.*

Los diversos puestos de feria deberán instalarse en los siguientes lugares:

Parking plaza de los Fueros.

*Fechas de funcionamiento.*

Los períodos establecidos para el funcionamiento de las atracciones y ferias a instalar son los siguientes:

En las fiestas de Corpus: entre los días 25 de mayo al 3 de junio de 2018, ambos inclusive.

En las fiestas de San Migel y Rosario: entre los días 21 de septiembre al 8 de octubre de 2018 (como máximo), ambos inclusive.

*Plazo de instalación.*

La instalación y montaje de los puestos de atracciones y ferias deberá realizarse:

En las fiestas de Corpus: a partir del 23 de mayo de 2018.

En las fiestas de San Migel y Rosario: a partir del 19 de septiembre de 2018.

*Instalación de caravanas y remolques.*

El lugar para la instalación de caravanas, remolques y vehículos ligados a los aparatos de feria será el aparcamiento público junto a Ulma.

*Retirada de instalaciones.*

Los plazos máximos para el levantamiento de las instalaciones, y por lo tanto, para el desalojo de los mencionados lugares, se fijan en los siguientes:

En las fiestas de Corpus: el día 4 de junio.

En las fiestas de San Migel y Rosario: el día 9 de octubre (como máximo).

*Suministros.*

Los suministros de agua y de energía eléctrica correrán por cuenta de los titulares de los puestos adjudicados.

Los feriantes adjudicatarios deberán acreditar documentalmente la contratación de la energía eléctrica necesaria tanto para el funcionamiento de los aparatos de feria como para el funcionamiento de las viviendas o caravanas.

*Horarios.*

El horario de funcionamiento de las atracciones y ferias se ajustará a la normativa dictada por el Gobierno Vasco.

En días laborables, a partir de las 24 horas cesará toda reproducción musical y sonora.

En vísperas de festivos, a partir de las 2:00 horas cesará toda reproducción musical y sonora.

*Horarios de montaje y desmontaje.*

Las labores de montaje y desmontaje: se realizarán dentro del siguiente horario: entre las 8:00 y las 20:00.

*Limpieza de suelo público tras la retirada de las instalaciones.*

La calle de enfrente de la atracción se deberá limpiar todos los días.

Una vez retirada la instalación deberá efectuarse la limpieza del suelo público ocupado.

*Licitación.*

La licitación versará sobre los siguientes extremos:

— Jarri beharreko atrakzio mota eta atrakzioaren ezaugarriak: 25 puntu.

— Antzinatasuna: 50 puntu. 50 puntu emango zaizkio Oñatiko plazan 10 urteko antzinatasuna duenari.

— Proposamen ekonomikoa. Pleguan ezarritako proposamen ekonomikoaren gainean egindako hobekuntza balioetsiko da. Udalari ordaindu beharreko zenbateko handienari 25 puntu emango zaizkio. Hortik aurrera, hiruko erregela aplikatuko da, zehazteko proportzionaltasun-irizpide garbiarekin gainontzeko puntuazioak, era honetan: «A-ri 25 puntu badagozkio, B-ri X, eta X izango da B bider 25 zati «A».

*Lizitazio mota.*

1. Instalazioen esleipenerako oinarri modura erabiliko diren lizitazio-prezioak Korpus festetarako jarraian zehazten direnak izango dira:

| | € |
|---|---|
| Kadete edo helduentzako tamaina handiko atrakzio edo gailua (300 m²-tik gorakoa) | 716 |
| Kadete edo helduentzako tamaina ertaineko atrakzio edo gailua (150 m²-300 m² bitartekoa) | 550 |
| Haurrentzako tamaina txikiko atrakzio edo gailua (100 m²-tik beherakoa) | 322 |
| Haurrentzako tamaina txikiko atrakzio edo gailua (100 m²-tik gorakoa) | 436 |
| Txurroen etxola, tonbola, bingoa edo antzekoa | 377 |
| Tiro erako edo antzeko xedeko etxola edo postua, 5 metroz azpikoa | 120 |
| Tiro erako edo antzeko xedeko etxola edo postua, 5 metroz gorakoa | 207 |

Instalazioen esleipenerako oinarri modura erabiliko diren lizitazio-prezioak San Migel festetarako jarraian zehazten direnak izango dira:

| | € |
|---|---|
| Kadete edo helduentzako tamaina handiko atrakzio edo gailua (300 m²-tik gorakoa) | 903 |
| Kadete edo helduentzako tamaina ertaineko atrakzio edo gailua (150 m²-300m² bitartekoa) | 610 |
| Haurrentzako tamaina txikiko atrakzio edo gailua (100 m²-tik beherakoa) | 393 |
| Haurrentzako tamaina txikiko atrakzio edo gailua (100 m²-tik gorakoa) | 506 |
| Txurroen etxola, tonbola, bingoa edo antzekoa | 632 |
| Tiro erako edo antzeko xedeko etxola edo postua, 5 metroz azpikoa | 186 |
| Tiro erako edo antzeko xedeko etxola edo postua, 5 metroz gorakoa | 320 |

2. Lizitazioaren barnean, baldintza hauek ezartzen dira barraketako gailuen instalaziorako.

— Bidaia baten prezioa, gehienez, 1,80 eurokoa izango da eta 6 bidaietako prezioa, gehienez, 10 eurokoa.

— Bidaia bakoitzak, gutxienez, 2 minutuko iraupena izango du.

3. Gailuen esleipena eta hautaketa horretarako erabilgarri dagoen espazioa aintzat hartuta egingo da.

*Proposamen-eredua.*

Proposamen oro jarraian deskribatzen den eredura egokitu beharko da:

1.— Oñatiko Udaleko eskari orria.

2.— Dokumentazio osagarria.

Dokumentazio osagarria.

Lehiakideek, beren proposamenarekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

— Tipo de atracciones a instalar y características de la atracción: 25 puntos.

— Antigüedad: 50 puntos. Se valorará 50 puntos la antigüedad de 10 años en la plaza de Oñati.

— Proposición económica. Se valorara la mejora de la propuesta económica sobre la establecida por este pliego. Al mayor importe a abonar al ayuntamiento se le darán 25 puntos. A partir de ahí se aplicará una regla de tres para determinar, con criterios de proporcionalidad pura el resto de las puntuaciones, del tipo «si a A corresponden 25 puntos a B corresponderán X, y donde X será igual a B por 25 partido por A».

*Tipo de licitación.*

1. Los precios de licitación que servirán de base para la adjudicación de las instalaciones serán los que a continuación se detallan para las fiestas del Corpus:

| | € |
|---|---|
| Atracción o aparato de grandes dimensiones para cadete o adulto de más de 300 m² | 716 |
| Atracción o aparato de tamaño medio para cadete o adulto entre 150 m² y 300 m² | 550 |
| Atracción o aparato de tamaño pequeño para público infantil de menos de 100 m² | 322 |
| Atracción o aparato de tamaño pequeño para público infantil de más de 100 m² | 436 |
| Caseta tipo churrería, tómbola, bingo o similar | 377 |
| Caseta o puesto tipo tiro o similar, de menos de 5 metros | 120 |
| Caseta o puesto tipo tiro o similar, de más de 5 metros | 207 |

Los precios de licitación que servirán de base para la adjudicación de las instalaciones serán los que a continuación se detallan para las fiestas de San Miguel:

| | € |
|---|---|
| Atracción o aparato de grandes dimensiones para cadete o adulto de más de 300 m² | 903 |
| Atracción o aparato de tamaño medio para cadete o adulto entre 150 m² y 300 m² | 610 |
| Atracción o aparato de tamaño pequeño para público infantil de menos de 100 m² | 393 |
| Atracción o aparato de tamaño pequeño para público infantil de más de 100 m² | 506 |
| Caseta tipo churrería, tómbola, bingo o similar | 632 |
| Caseta o puesto tipo tiro o similar, de menos de 5 metros | 186 |
| Caseta o puesto tipo tiro o similar, de más de 5 metros | 320 |

2. A efectos licitatorios, se establecen las siguientes condiciones para la instalación de los aparatos de feria.

— El precio de 1 viaje será de 1,80 € como máximo y el precio de 6 viajes será de 10 € como máximo.

— La duración mínima de cada viaje será de 2 minutos.

3. La adjudicación y selección de aparatos se efectuará teniendo en cuenta el espacio disponible a tal fin.

*Modelo de proposición.*

Toda proposición deberá ajustarse al modelo que a continuación se describe:

1.— Instancia del Ayuntamiento de Oñati.

2.— Documentación complementaria.

Documentación complementaria.

Los concursantes presentarán con su proposición los siguientes documentos:

EK\CV GAO-I-2018-01702

— NAN agiriaren fotokopia.

— Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren fotokopia.

— Erantzukizun Zibileko Aseguruaren Polizaren fotokopia, eta dagokion ordain-agiriarena, gutxienez, ezbeharreko 600.000 euroko estaldura izan beharko duena helduentzako atrakzioen kasuan, eta 300.000 eurokoa haurrentzako atrakzioen kasuan, etxolen eta gainerako negozioen kasuan, gutxieneko estaldura 150.000 eurokoa izan beharko delarik.

— Gailuaren argazkia eta dimentsioak.

— Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak, 2018ko datarekin, honakoa ziurtatzekoak: Gizarte Segurantzan alta egoeran egotea eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eginda izatea.

— Ogasunak igorritako ziurtagiriak, 2018ko datarekin, honakoa ziurtatzekoak: dagokion ekonomia jardueren gaineko zergan alta egoeran izatea eta Ogasunarekiko ordainketak eginda izatea.

— Aurreko urteetan festa hauetan barraketako langile modura parte hartu izanaren zinpeko aitorpena.

— Egiaztapen eta frogarako urteko ziurtagiria, eskumeneko teknikariak igorria eta kolegio ofizialak onetsia.

— Behe-tentsioko instalazio elektrikoaren ziurtagiria eta instalatzaile baimenduak sinatutako eta Euskadiko Erkidegoko Industriako Zuzendaritza Nagusiaren instalatzaileak onartutako bide-orria.

— Titularraren izenean jarduera gauzatzeko baimendutako pertsonen izen-abizenak: pertsona horiek ezkontide edo seme-alabak balira, egoera hori egiaztatzeko ziurtagiriak eta, langileak balira, lan-harremanaren egiaztagiria.

— Instalazioaren ziurtagiria. Behin atrakzioak muntatuta, eta jendaurrera ireki aurretik, instalazioetako jabeek eskumeneko teknikariak igorritako ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute. Bertan, dagokion ikuskapenaren ondotik, barraketako atrakzioa publikoan erabiltzeko modukoa dela egiaztatuko da.

*Aurkezpen-epea.*

Proposamenak eta harekin batera aurkezteko dokumentuak Udalaren erregistrora eraman beharko dira jendearen arretarako ordutegian, 2018ko apirilaren 11tik 18ra bitartean.

*Esleipendunen betebeharrak.*

Lehiaketa honetako esleipendunek barraketako postuak bi festetan edo bietako batean instalatzeko aukera izango dute.

— Jaietan barrakak edo postuak jarri ahal izateko derrigorrezkoa izango da prezioak, errotuluak eta oharrak euskaraz ere egotea. Gainera, girotzeko erabiliko den musika euskarazkoa izango da.

— Esleipendunek arreta bereziz zaindu beharko dute garbitasuna eta higienea instalatutako gailu guztietan eta jendearen arretarakoetan.

— Ez da onartuko adin txikikoek atrakzioetan lan egiterik, ez leihatiletan, ez gailu mekanikoen manipulazioan, ez etxoletan.

— Egonaldian zehar betebehar horietakoren bat urratzea, esleipendunaren aldetik edo atrakzioko langilearen aldetik, kanporatzeko nahikoa arrazoi izango da.

*Arau-hausteak eta zehapenak.*

— Arau-hausteak.

Baldintza-agiri honen kontra doazen ekintza eta ez-betetze hauek antzinatasuna galtzea eta Oñatiko plazatik kanporatzea ekar dezakete:

a) Udaletxeko langileen ahozko aginduak ez betetzea, horren ondorioz, beste pertsona batzuen lasaitasuna eta horien eskubideak modu baketsuan betetzea eragozten denean edo jardueren garapen normala eragozten denean.

— Fotocopia del D.N.I.

— Fotocopia del Impuesto de Actividades Económicas.

— Fotocopia de Póliza del Seguro de Responsabilidad Civil, y de su correspondiente recibo, con una cobertura mínima por siniestro por importe de 600.000 € para atracciones de adultos, 300.000 euros para atracciones infantiles y 150.000 euros para casetas y resto de negocios.

— Fotografía y dimensiones del aparato.

— Certificados de la seguridad social con fecha de 2018 que acrediten: alta en la seguridad social y estar al corriente de pagos con la seguridad social.

— Certificados emitidos por la hacienda, con fecha de 2018 que acrediten: alta en el impuesto de actividades económicas correspondiente y estar al corriente de pagos con la Hacienda.

— Declaración jurada de los años anteriores en que ha participado como feriante en estas fiestas.

— Certificado anual de verificación y prueba emitido por técnico competente y visado por colegio oficial.

— Certificado de instalación eléctrica de baja tensión y hoja de ruta firmada por instalador autorizado y autorizada por instalador Dirección general de Industria de la comunidad de Euskadi.

— Nombre y apellidos de las personas autorizadas para ejercer la actividad en nombre del titular: si fueran conyugues o hijos, certificado acreditativo de tal situación y si fuera empleado, acreditación de la relación laboral.

— Certificación de la instalación. Montadas las atracciones, y con anterioridad a la apertura al público, los propietarios de las instalaciones deberán de presentar un certificado emitido por técnico competente en el que se acredite, tras la oportuna inspección, que la atracción de feria es apta para su uso por el público.

*Plazo de presentación.*

Las proposiciones y documentos que las acompañen se presentarán en el registro del Ayuntamiento en horario de atención al Público, entre el 11 y el 18 de abril 2018.

*Obligaciones de los adjudicatarios.*

Los adjudicatarios del presente concurso podrán instalar los puestos de feria en ambas fiestas o en una de las dos.

— Para poder instalar aparatos y puestos en fiestas será obligatorio que los precios, los rótulos y los avisos estén también en euskara. Además, la música deberá ser en euskara.

— Los adjudicatarios estarán obligados a cuidar con especial atención la limpieza e higiene en la totalidad de los aparatos instalados así como en la atención al público.

— No se admitirán menores trabajando en las atracciones tanto en las taquillas como en la manipulación de aparatos mecánicos, ni en las casetas.

— Cualquier incumplimiento de las obligaciones producida durante la estancia, por el adjudicatario, o empleado de la atracción correspondiente será motivo de expulsión.

*Infracciones y sanciones.*

— Infracciones.

Las acciones y omisiones contrarias a este pliego de condiciones podrían acarrear la pérdida de antigüedad y expulsión de la plaza de Oñati:

a) La desobediencia a las órdenes verbales del personal municipal cuando perturbe la tranquilidad y el pacífico ejercicio de los derechos de otras personas o el desarrollo normal de las actividades.

EK\CV GAO-I-2018-01702

b) Dagokion udal-lizentzia izan gabe, udal-jabetzako lurrak okupatzea barraketako gailuak, etxolak eta antzekoak finkatuz.

c) Lurren okupazioa edo jarduerak lizentzian baimendutako epetik gora luzatzea.

d) Ordenantza honetan ezarritakoen arabera funtzionamendurako baimenak eskuratu gabe, atrakzio mekanikoak funtzionamenduan ipintzea.

e) Segurtasun eta apaingarri publikoetan eragozpen larriak eragitea.

g) Desmuntatzea epez kanpo egitea edo, edozein kasutan, partzela apaingarri eta garbitasunari dagozkion baldintzak behar bezala bete gabe uztea.

h) Instalazioa edo jarduera ireki eta ixteko ezarritako ordutegia ez betetzea.

i) Udal zerbitzuek ikuskatutako potentzia edo instalazio elektrikoa aldatzea, gailu edo instalazio berriak konektatuz, kableak ezartzerakoan aldaketak eginez, argi-kaxa aldatuz eta Udalak baimentzen ez dituen bestelako aldaketak eginez.

j) Karabanak baimenik gabe instalatzea.

k) Espazio publikoa erabiltzeko eskubidea duten beste pertsona batzuei espazio hori erabiltzen ez uztea.

l) Jabari publikoko ekipamendu, azpiegitura, instalazio edo elementuak larriki eta nabarmen kaltetzen dituzten ekintzak burutzea.

m) Agintariekin edo udaletxeko langileekin lankidetzarik ez azaltzea, edo horien funtzioak eragoztea.

n) Udaltzaingoak emandako agindu eta jarraibideak behin eta berriz urratzea.

ñ) Tokiko Agintariek emandako betekizun edo gauzatzeaginduak behin eta berriz urratzea.

o) Udal Agintariek emandako bando, dekretu edo bestelako ekintza eta xedapenak ez betetzea, urratze horrek pertsonen segurtasun eta osasunean eragina duenean, eta legean ebatzi ezin direnean.

P) Udalaren eta Barraketako Langileen Elkarte edo beste edozein pertsona edo entitateren artean adostutako kontratuak ez betetzea, aurreko zenbakian adierazitako kasuetan; eta herriko festen edo irudia nahiz prestigioa kaltetzen dutenean edo tokiko ekintza eta ekitaldiak kaltetzen dituztenean, edo festetako Udalaren programazioa aldatzea edo haren garrantzia galtzea eragiten dutenean.

*Zuzenbide osagarria.*

Baldintzen Plegu honetan aurreikusten ez denerako, aplikagarri den Tokiko Legedian nahiz Legedi Orokorrean xedatutakoa beteko da.

b) Ocupar terrenos de propiedad municipal mediante la instalación de aparatos de feria, casetas y similares sin la oportuna licencia municipal.

c) Prolongar la ocupación de los terrenos o la realización de la actividad superando el plazo autorizado en la licencia.

d) Poner en funcionamiento atracciones mecánicas sin haber obtenido el correspondiente permiso de funcionamiento en los términos establecidos en la presente ordenanza.

e) Causar una perturbación grave a la seguridad y ornato públicos.

g) El desmontaje fuera del plazo otorgado o, en cualquier caso, abandonar la parcela en inadecuadas condiciones de ornato y limpieza.

h) El incumplimiento del horario establecido para la apertura y cierre de la instalación o del ejercicio de la actividad.

i) Alterar la potencia o instalación eléctrica inspeccionada por los servicios municipales mediante el enganche de nuevos aparatos o instalaciones, variación de la colocación del cableado, alteración de las cajas de luz y demás modificaciones en la instalación no autorizadas por el Ayuntamiento.

j) La instalación de caravanas sin autorización.

k) El impedimento de uso de un espacio público por otras personas con derecho a su utilización.

l) Los actos de deterioro grave y relevante de equipamientos, infraestructuras, instalaciones o elementos afectos al dominio público.

m) La falta de colaboración con los agentes de la Autoridad o el personal municipal o la obstaculización de sus funciones.

n) El incumplimiento reiterado de las órdenes e instrucciones emitidas por la Policía Local.

ñ) El incumplimiento reiterado de los requerimientos u órdenes de ejecución emitidos por las Autoridades locales.

o) El incumplimiento de los bandos, decretos u otros actos y disposiciones procedentes de las Autoridades municipales, que afecte a la seguridad o salud de las personas, cuando no sean subsumibles en los tipos legales.

p) El incumplimiento de los contratos celebrados entre el Ayuntamiento y la Asociación de Feriantes o cualquier otra persona o entidad, en los casos señalados en el número anterior; y cuando perjudiquen la imagen y prestigio de las fiestas patronales o los actos y eventos locales, o alteren o desacrediten la programación municipal de los mismos.

*Derecho supletorio.*

En lo no previsto en este Pliego de Condiciones, se estará a lo dispuesto en la Legislación Local y general que resulte de aplicación.

EK\CV GAO-I-2018-01702